



# Egun bateko negarra betiko poza







# Aurkezpena

Kaixo, gaur nire egunerokoa idazten hasiko naiz. Eguneroko honetan nire egunerokotasuneko gertakizunak, sentimenduak, gustuko gauzak, ametsak… idatziko ditut, baina horren aurretik nola antolatuko dudan azalduko dut. Hasteko, pentsatu dut poema bat jartzea eta, ondoren, egunean zehar gertatu zaizkidan gauzak eta zer sentimendu eragin didan jarriko dut. Poemak nik euskarako klasean edo etxean aspertuta idatzitakoak dira. Gero, bukaeran, ordena berdina jarraituko dut, baina egunean zehar ez bazait

# Ondo pasatzea eragiten didaten abeslariak:





















Urduritasuna
Oso urduri nago: laister gabonak dira, urte berri bat hasten dugu, eta gogo handia dut lagunekin eta familiarekin ospatzeko. Hala ere, lan asko egin behar ditut ikastolarako, ikastola hasi eta hurrengo astean

## Halaxe erakartzen nauzu

***Mendi-tontorrak mendigoizaleak bezala erakartzen nauzu,***

***ilargi beteak otsoak bezala,***

***imanak metalak bezala,***

***itsasoak marinelak bezala,***

***diruak aberatsak bezala,***

***odolak marrazoak bezala,***

***bitxiak lapurrak bezala,***

***halaxe erakartzen nauzu zuk.***



# Poza

Gaur oso pozik nago, izan ere, gabonak dira eta opariak ireki ditut, eta egun guztia familiarekin pasa dut. Laister ospatuko ditut gabonak lagunekin eta, behintzat, oraindik egun batzuk falta dira ikastolara bueltatzeko.



# Ni izan nintzen...

Malkoa izan nintzen zure begietan,
Taupada izan nintzen zure bihotzean,
Ametsa izan nintzen zure loaldian,
Letra izan nintzen zure abestian,
Agurra izan nintzen zure gutunean,
Kanta izan nintzen zure kontzertuan,
Erritmoa izan nintzen zure dantzan,
Eta orain malenkonia naiz zure oroimenetan.


Esperantza
Gaur itxaropentsu nago, orain hasi den urtea (2020) urte on bat izatea nahi dudalako eta urte berrirako nire desioak betetzea nahi dudalako.

# *Nire bihotza...*

***Nire bihotzak ate ezberdinak dauzka,***
***Nire bihotzean melodia bat dago,***
***Ametsez eta misterioz egina da nire bihotza***



Tristura

Gaur errege eguna izan da eta oso ondo pasa dut, baina bihar oporretatik ikastolara bueltatu behar dugu; horregatik, oso triste nago. Gainera, aste honetan ez, baina hurrengoan azterketak ditut eta gabonetan horietarako ikasten aritu naiz.

# Elkartu dut…

***Miresmena heroiarekin elkartu dut, denoi gustatuko bailitzaiguke gaiztoei aurre egitea.***
***Beldurra munstroarekin elkartu dut, txikitan denoi beldurra ematen zigun eta.***
***Alaitasuna pailazoarekin elkartu dut, izan ere, pailazoek alaitu egiten gaituzte.***

shutterstock.com • 445597606

# Gustukoak diren eta ez diren gauzak




Irrikitan nago, izan ere, gaur egunerokoa egiten ari gara ikastolan eta nere pentsamendu eta gertakizunak jarriko ditut. Niri gehien gustatatzen zaizkidan gauzak saskibaloia, musika, dantza... dira. Gutxien gustatzen zaizkidan gauzak, ordea, futbola, mina egiten duten pertsonak, berdurak… dira.






Denetik du bizitzak...
Amets onak
amets gaiztoak
denetik du egunak
baina gaur tori eguzkia
eta utzi trumoiak



# Gustatuko litzaizkidakeen bidaiak

**Niri, handiagoa naizenean, leku hauetara joatea gustatuko litzaidake: Italia, Mexiko kapitala, Rivera Maya, Rio de Janeiro, Australia, New York, Dominikar Errepublika, Kanada, Irlanda, Egipto, Grezia eta India, izan ere, bidaiatzea oso gustuko dut eta oso leku politak dira.**


Oraina zaitut eta etorkizuna aldatzen didazu,
Lehena zaitut eta zimurrak kentzen dizkidazu,
Gaua zaitut eta amets zoragarriak sortzen dizkidazu,
Laztana zaitut eta azala leuntzen didazu,
Izarra zaitut eta begiak argitzen dizkidazu,
Tipula zaitut eta begiak itsasoa bihurtzen dizkidazu.
Nik zaitut
N



# Nire ametsak

Orain bururatu zait nire ametsak jartzea, izan ere, pentsatzen hasi naizenean, ez neukan batere garbi zein zen nire ametsa, igual saskibaloiko jokalaria izatea, edo musikari profesionala, edo arkeologoa… jendeak oso garbi edukitzen du zer egin nahi duen edo zer izan nahi duen, baina nik ez. Bueno, baina oraindik denbora asko daukat hori pentsatzeko, ez naiz urduri jarriko.



## Zugan pentsatzeko...

Bizidunak, bizigabeak,

Txuriak, beltzak,

Argiak, iluntasunak,

Eguzkiak, ilargiak,

Borobilak, karratuak

Hori guztiak zugan pentsaraztea eragiten dit.



# INAUTERIAK

Urte honetan lagunekin aterako naiz, Stitchez jantzita. Stitch pelikula bateko munstro urdin bat da. Gehienok Ostegun Gizenean aterako gara, txarangetara, barraketara, zezenetara… joango gara. Inauterietan urtero oso ondo pasatzen dut, baina urte honetan esperantza daukat oraindik hobeto pasako dugula.



# AGUR



**Gaur da hemen idazten dudan azkeneko eguna, eta, egia esan, gehiago idaztea gustatuko litzaidake, oso ondo pasa dudalako hau idazten, eta, gainera, eguneroko honi esker gehiago ezagutu dut nire burua. Baina hau ez da hemen bukatu, nire gertakizunak eta sentimenduak etengabe sortuko direlako.**




